



Gizarte eta Komunikazioko Fakultatean izandako gertakarien aurrean

steilas sindikatuak gaitzetsi egiten du, atzo eguerdian, gure Unibertsitateko Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatean gertatutakoa.

Ez da gure jendartean, ezta gure Unibertsitatean ere, halako jazoera justifika dezakeen inongo arrazoirik. Guztion ondasunen kontrako kalteak salatzen direla deritzogu, baina pertsonak arriskuan jartzen dituzten ekintzak guztiz onartezinak.

Honek guztiak gaiztotu egiten du unibertsitate barruko elkarbizitza eta zoritxarrez, gaur egun, jarrera autoritario eta atzerakoiak baino ez ditu hauspotzen.

Horrenbestez, Unibertsitateko kide guztioi dei egiten dizuegu gaur antolatuta dagoen kontzentrazioan (Mikel Laboa plaza, 13:00) parte-hartu eta gure arteko elkarbizitza kaltetzen ari diren ekintza hauek arbuizatzen.

www.steilas-unibertsitatea.eu

Araba: 945 01 33 97
Aulario Las Nieves, Ofic. 204
steilas-araba@ehu.eus

Bizkaia: 94 601 24 34 - 24 35
Edif. Bibilioteka, 2.pta. Leioa
steilas-bizkaia@ehu.eus

Gipuzkoa: 943 82 81 - 84 36
Ed. Ignacio M^a Barriola Pza. Elhuyar, 1
steilas-gipuzkoa@ehu.eus